# MATRIKULAZIOA 2025/2026

AURRE-MATRIKULAZIO ALDIA 2025/2026 IKASTURTERAKO:

EPEA: MAIATZAREN 12tik 16ra (biak barne)

LEKUA: ORDIZIAKO MUSIKA ESKOLAN

ZALDIBIAN IZEN EMATEKO AUKERA:

Eguna: maiatzaren 14an, asteazkena

Ordua: 16:00etatik 19:00etara

Lekua: Kimuene Kulturgunean

Oharra: egungo erabiltzaileek eta berriek guztiek bete behar dute matikulazio orria

ORDIZIAKO® MUSIKA ESKOLA
Barrena Jauregia-Kultur Etxea
Tel: 943 888 752
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
GOIERRIKO® MUSIKA ESKOLA

ZALDIBIAKO UDALA
zaldibia.eus

# MUSIKA ESKOLAREN ESKAINTZA

## 1 MUSIKA TAILERRAK KONTAKTUA

4–7 urte bitarteko haurrak musikarekin lehen harremanetan jartzeko saio ludikoak dira tailerrak.

## 2 HIZKUNTZA MUSIKALA

Erritmoa, melodia, ahotsa, arnasketa... Instrumentua jotzeko oinarrizko ikasketa da hizkuntza musikala.

## 3 INSTRUMENTUAK

Instrumentua jotzen ikasteko aukera zabala, bai adin txikikoentzat, baita gazte, heldu edota jubilatuentzat ere.

## 4 INSTRUMENTU ETA KANTU TALDEAK

Instrumentu taldeak, konboak edota kanturako aukera ezberdinak.

# MUSIKA TAILERRAK



## 4-5 URTE

Musika Tailerra 1ª/2ª: HH4 eta HH5 mailetako haurrentzat.
Astean 30 minutuko bina saio.
Prezioa: 40 euro/hilean
Taldea osatzeko gutxieneko kopurua: 3 haur.

## 6-7 URTE

Tailerra 3ª/ Hastapena: Lehen Hezkuntza 1. eta 2. mailetakoentzat.
Tailerra 3ª: Astean 45 minutuko bi saio. 40 euro/hilean.
Hastapena: Astean 45 minutuko bi saio. 47 euro/hilean.
Taldea osatzeko gutxieneko kopurua: 3 haur.



# HIZKUNTZA MUSIKALA

16 urtera arte instrumentua jotzen hasi ahal izateko derrigorrezko ikasketa da. Oinarrizko ikasketak 4 maila ditu.

Taldean egiten den ikasketa da, astean bi saio, guztira 1'5 ordu. Prezioa: 47 euro/hilean, irailetik ekainera.

16 urtetik gorakoek instrumentua ikasteko ez dute Hizkuntza Musikala egin beharrik.

Trikitixa eta panderoa ikasteko Hizkuntza Musikala ez da beharrezkoa.

# INSTRUMENTUAK

AKORDEOIA
BATERIA/PERKUSIOA
BAXUA
BIOLINA
BIOLONTXELOA
BONBARDINOA
GITARRA KLASIKOA/ELEKTRIKOA
KLARINETEA
PANDEROA
PIANOA
SAXOFOIA
TRONBOIA
TRONPA
TRONPETA
TUBA
TRIKITIXA
TXISTUA
ZEHARKAKO TXIRULA



- Astean 30 min, bakarkako saioan
- Prezioa: 58 euro/hilean, irailetik ekainera.

# MUSIKA HERRIAN

Musika Eskolaz gain, herrian bada musikaz gozatzeko aukera gehiago ere, herritarren ekimenez osatuak asko. Guztiek zabalik dituzte ateak gerturatu nahi duten herritarrentzat, beraz interesatzen bazaizu eskatu informazioa Kultur Etxean.



## 1 KANTU ESKEKO TALDEA

Hileko lehen asteartetan 19:30ean biltzen dira hainbat herritar Kimuenen kantuan aritzeko. Neguko kantu eskeko kideak dira, urtean zehar ere kantatzera animatu direnak.



## 2 TXANBOLINTERO TXISTULARI TALDEA

Ostiraletan 18:30ean biltzen dira Kimuenen herriko hainbat txistulari entseatzeko. Urtean zehar hainbat kalejira eta emanaldi egiten dituzte.



## 3 GOIZTIRI TXARANGA

Urte askotako ibilbidea berreskuratuta, Goiztiri txarangako kideek ere alaitzen digute kalea. Ostiral iluntzetan, bi astez behin, elkartzen dira entseatzeko. Bertara batu nahi?

## 4 ENTSEGU LOKALA

Kimuene Kulturguneko gela eta aretoak eskuragarri daude musika instrumentuak entseatu ahal izateko. Antolakuntza adostuta eta instalazioak zainduta, dena da posible!

## 5 EKARPENIK?

Musikazaleen ekarpenak ere jaso nahi ditugu, ziur ideia ugari dituzula eta. Ikastaro txikiak, ekimenak.... Etorri lasai Kultur Etxera eta gustura jasoko ditugu ekarpen horiek!

# Eman musika zure bizitzari

# EMAN BIZIPOZA!

Eman izena!